

IL AZALPEN PROBA • <i>Prime-Time</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Bulegotik atera eta patxadaz ibiltzen hasi ziren. Deustuko zubia gurutzatu zuten. Campo Volantin aldera heldu ziren. Berrogeita bederatzigarren ataria aurkitu zuten.

Lehenengo solairuan, ezkerreko ateko etxebizitzan, garai bateko aurkezle eta aktore ezagunak, Lukas Montxonek, ongietorri hotza eman zien. Disimulatzen saiatu ziren arren, gizona ikusi zutenean, Bala eta Klemente harrিতa geratu ziren. Segituan ulertu zuten zergatik ez zen telebistan aspaldian azaldu, zergatik galdu zuen arrakastaren trena, zergatik ez zen joan goiz hartan euren bulegora, zergatik zitatu zituen bere etxean.

Lukas Montxon, gurpil-aulki astunari lotuta bizitzera kondenatuta zegoen. Gizon kopetilun haren aurrean, bat-batean Balak lotsa puntu bat sentitu zuen, eta aitzakia bila hasi zen:

—Barka lehen telefonoz zakar samarra izan banaiz –atera zitzaion—. Ez nekien...

—...ez zenekien elbarri nengoela –amaitu zuen Lukas Montxonek esaldia, zorrotz—. Bizitza oso traidorea izaten da batzuetan. Kotxe istripu madarikatu batek izan zuen errua. Aspaldiko kontua. Lukas Montxon naiz. Eskerrik asko etortzeagatik. Pasa, egongelan lasaiago hitz egingo dugu.

IL AZALPEN PROBA • <i>Prime-Time</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Zortzietan saiatu naiz hirugarren aldiz. Azkenean telefonoa hartu dit. Eskerrak, pazientzia galtzen hasita nengoen.

Aurrekoetan bezain desatsegin sumatu dut hasieran, kolaboratzeko gogorik gabe, laguntzeko intenziorik gabe.

Niregatik ez, bere anaiarengatik egin behar duela gogoratu diot, baina mutu antzean jarraitu du.

Niregatik edo anaiarengatik egin nahi ez badu, euren amarengatik egiteko eskatu diot, ama horrek Alexekin gertatutakoa jakitea merezi duelako, egia osoa alegia. Bai, Josu Aginagari laguntza erregutu diot ahal dudan tonurik apalenean.

Ama gaixoaren argumentuarekin hunkitu egin dudala esango nuke, eta nire harridurarako, berritsu samar jardun da hortik aurrera.

Badugu Produkzioak ekoiztetzeko bost emakume langileengan zentratu dugu elkarrizketa. Berak garbi utzi nahi izan du ez dituela ondo ezagutzen, eta informazio fidagarriagoa lortzeko hobe dudala erreferentziak beste nonbaiten bilatu.

Dena den, nik emakume horiek banan-banan deskribatzeko eskatu diot, ahal bada, fisikoki ere nolakoak diren zehaztuz:

—Rosario Landa. Ekoiztetzeko kontablea.

IL AZALPEN PROBA • <i>Prime-Time</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Ofizinako atea zabaldu denean, sekula santan existitu den emakumerik zirrargarriena agertu zait nire begi-bistan!

Laura Arana, O-la-la... Jaungoikoak mundu honetara espresuki niretzat bidalitako aingeru guardakoa, dedio!

Honezkero sarritan entzuna dut bizitzaren momentutik ilunenetan ere, azkenean beti agertzen dela argi printza bat. Niri argi printza ez, niri eguzki osoa azaldu zait bat-batean!

Mozolotuta geratu naiz ari begira, teenager kokolo baten antzera, zer esan jakin gabe, mutu.

—Bai? –iluminatu du Laura Aranak nire izate guztia galdera ximple horrekin.

Une horretan bertan erabaki dut nire bizitza osoa berarekin konpartitu nahi dudala, betiko, planeta honetan hasi eta eternitatea agortu arte.

—Badugu... Produkzioak? –izan da erabaki erabakigarri hori hartu ondoren eztarritik atera zaidan lerdokeria bakarra.

—Kanpoko errotuluan, behintzat, horrela idatzita jarraitzen du, ezta? –zirikatu nau Laurak bere irribarre ironikoarekin tinbre gaineko plaka seinlatu ondoren.

IL AZALPEN PROBA • <i>Prime-Time</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Kokoteraino nago. Ez zaitut soportatzen. Badakizu zer den okerrena? Gauza asko bizi izan ditugu elkarrekin, gauza onak eta ez hain onak, esperientzia mordoa konpartitu ditugu, abenturak eta kalenturak... baina ez zaitut ezagutzen, Klemente! Ez zaitut batere ezagutzen! Zure alboan ordu mordoa pasa ditudan arren, apenas dakit ezer zuri buruz! Pertsona arrotza zara niretzat. Martzianoa. Ezberdin pentsatzen dugu, ezberdin sentitzen dugu, ezberdin funtzionatzen dugu, zeharo ezberdinak gara. Sentitzen dut, guk biok ez daukagu zereginik, ez daukagu etorkizunik. Akabo.

Elustondo mutu geratu da. Ez du aurpegiko gihar bakar bat mugitu. Jela pusketa ematen du, hotz eta izotz:

—Nire errua da –onartu du azkenean Klementek lotsatuta.

—Jakina. Norena bestela? –leporatu dio Balak.

—Kosta egiten zait besteengan konfiantza izatea, hori da arazoa.

—Astoaren barrabilak! Ni ez naiz edonor!

—Nire gurasoek, Javier era Aurorak, adoptatu egin ninduten –esan du Klementek bat-batean, sekulako patxadaz, eta sekulako lasaitua hartu duela ematen du, zama astuna bizkar gainetik kenduta, nonbait.

IL AZALPEN PROBA • <i>Prime-Time</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Grabazio horiek pen-drive batean kargatu ditut, eta auzoko ezagun baten argazki-dendara jaitsi naiz arrapaladan.

Mikel Lezeta. Laguna dut, txikitatik. Eskolan Torrebruno esaten genion. Argazkilari famatua bihurtu zenetik, ordea, *Tarantino* da bere goitizena.

Nire bisitaren arrazoia jakin duenean, ikertzen ari garen kasu konplikatu argitzeko laguntza eskatu diodanean, alegia, Mikel *Tarantino* Lezeta emozionatu egin da. Auskalo zer pentsatu duen, gauetik egunera CIAko agente sekretua izendatu nautela, akaso.

Kontua da ordu hauetan dendan ez dagoela bezero bakar bat ere. "Jode, argazkilariak detektibe pribatuen antzera daude, krisialdi larrian harrapatuta!", pasatu zait burutik panorama ikusita.

Mostradoretik atera da eta kristalezko hormak dituen gela batean sartu gara, Tarantinoren despatxoa izango da, nonbait. Ordenagailua piztu du, sekulako pepinoa, Mac Pro. Inbidia pixka bat sentitu dut.

Nire pen-drivean kargatutako artxiboak bere ordenagailuan kopiatu ditu. Irudiak lehenengo aldiz ikusi dituenean muturra okertu du:

—Ufa, oso kalitate txarrekoak dira!

IL AZALPEN PROBA • <i>Prime-Time</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Azalduko didazu zertara datorren zafarrantxo hau?

—Campo Volantineko bere etxeko egongelan lehenengo aldiz bildu ginenean, kontratatu gintuen egunean, Lukasek telefono deia jaso zuen. Sakelakoa atera zuen patrikatik, elkarrizketa laburra izan zen. Moztu zuenean, telefonoa niri eman zidan...

—Bai –akordatu da Klemente–. Iskinaren batean uzteko eskatu zizun, inork berriro ez molestatzeko.

—Aja. Eta zer egin nuen nik, e? Gehiegi pentsatu gabe, telebista gaineko armairuan utzi nuen telefonoa, goiko apalean. Eskua luzatu behar izan nuen, apala oso altu zegoelako. Ni gizon morroskoa naiz, metro eta laurogeita bost zentimetro luze. Badakizu zer esan nahi duen horrek? Konturatu gabe Montxonen telefonoa ia bi metrora kolokatu nuela...

—Ia-ia sabaian...

—Horixe bera. Baina gurrpil-aulkian eserita egon arren, Lukasek ez zuen protestatu, ez zuen ezer esan.

Ordurako Klemente intrigatuta dago. Eta nik, lagunaren arreta bereganatu dudala sumatuta, azalpena ematen segitu dut...

IL AZALPEN PROBA • <i>Prime-Time</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Ehiza-txakur haien lana hurbiletik zaindu behar nuela erabaki nuen. Eta neure burua ondo babesteko, kategoriako aktore baten trikimailu guztiak erabiltzea okurritu zitzaidan.

Emakume gazte bihurtzeko behar nituen osagarriak, adibidez, azkar eta erraz eskuratu nituen, banekielako non bilatu: soineko beltza, zapata takoidunak, peluka ilehoria, makillajea... eta kito, lau elementu sinple horiekin sortu nuen dama misteriotsua.

Detektibeak kontratatu eta hurrengo goizean, beraz, Loiuko aireportu inguruko kontzesionario batean aste batzuetarako autoa alokatu nuen. Gaizki pasatu nuen hainbeste denbora eta gero lehenengo aldiz autoa gidatu nuenean, baina tira, aspaldiko istripu zikinaren mamuak uxatu nituen martxan jarraitu ahal izateko.

Arratsaldean, beltzez jantzitako emakume mozarrotuta, Arrigunagara joan nintzen Martin Balaguerren mugimenduak zelatatzera. Une jakin batean, haize-errotaren ertzean nengoela, konturatu nintzen Balaguer niri begira zegoela. Ikaratu egin nintzen, tipoa korrika hasi, nire gainera etorri, eta bertan harrapatuko ninduela pentsatuta... Zorionez, ez zuen ipurdia garaiz mugitu, eta handik ospa egin eta salbu atera nintzen.